Gizartea → Etxerik gabekoen aterpeak

> Profila aldatu da: egun etortzen diren askok, lana balute, ez lukete gure beharrik izanen»
>
> **RUBEN UNANUA**
> Iruñeko aterpetxearen zuzendaria

Erretzeari uzteko kanpaina luzatu du Paris 365 jantokiak

Modu solidarioan erretzeari uzteko kanpainaren arrakasta ikusita, maiatzaren 31ra arte luzatuko du Paris 365 jantokiak. Ez erretzeagatik aurreztutako dirua jantoki solidariorako erabili dute askok. Tabakismoari aurre egiteko Hego Euskal Herriko elkartearekin batera abian jarri zuen egitasmoa, iaz.

Bazterkeriaren aurkako politika aldatu behar da, tesi baten arabera

Krisi garaian bazterkeriak zer-nolako ondorioak dituen aztertu du Lucia Martinez Virtok bere doktore tesian. Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurkeztu du bere lana; harenuestez, krisi garaian bazterkeriaren aurkako politikak aldatu behar dira, gehien baztertutako familiak kanpoan uzten dituelako krisiak.

%10

▪ **Emakumeen ehunekoa Iruñeko aterpetxean.** Iaz Iruñeko aterpera jo zutenen artean, %10 baino ez ziren izan emakumeak. Datua baxua bada ere, «pobreziaren feminizazioa» gertatzen ari dela diote adituek: gero eta emakume gehiagok zerbitzua behar dute.

egokituta». Inoiz ez dute erabiltzaile bat kaleratzen aukeraren bat ez baldin badu. Alternatibak desberdinak izan daitezke: logela bat lortzea edo baliabide ekonomikoak izatea. Aterpea uzten dutenean, gainera, lanean jarraitzeko aukera ematen diete. «Gehienek buruko osasun arazoak eta drogekiko mendekotasuna dute. Hasierako egoerara ez itzultzea nahi dugu».

«Korapilatsua» da jakitea nola iritsi diren dauden egoerara. Unanuak arrazoi askoren batuketa izaten dela uste du: «Bata bestearen atzetik gertatzen dira: drogekiko mendekotasuna, gertuko pertsona baten heriotza, lana galtzea, familia zatitzea...». Laguntza eske ailegatzen dira aterpera. Gehienek harremana galdu dute familia eta lagunekin. Baliabide ekonomikoak lortzea izaten da haien lehentasuna, logela bat alokatzeko eta haien bizitza berreskuratzeko. «Gehienak bakarrik daude, eta haiekin hitz egitea eta entzutea oso garrantzitsua da, askotan barruan dutena askatu behar dutelako; bakardadea da haien arazo nagusia».

> Hiriz hiri eta aterpez aterpe bizi naiz; nola edo hala, beti aurrera atera naiz; ez naiz kexatzen»
>
> **MAÑO**
> Iruñeko aterpetxearen erabiltzailea

> «Gogorra da; baina, kartzelan behintzat, ohea dut, janaria, patioa; hobe da kalean bizitzea?»
>
> **MIKEL**
> Iruñeko aterpetxearen erabiltzailea

Psikologoak, hezitzaileak eta gizarte langileak aritzen dira haiekin lanean. Urtetan kalean bizi izan dira, araurik gabe, eta batzuei ez zaie erraza egiten aterpeko bizimodua. Egunero dinamikak izaten dituzte, nora jo eta nondik hasi erabakitzen laguntzeko. Horretaz gain, lanbide tailerrak egiten dituzte. «Orain dela gutxi baratz txiki bat egin zuten, eta boluntarioen laguntzekin zineforumak antolatzen ditugu». Erabiltzaileek, gainera, *bajouncieloabierto.wordpress.com* bloga dute eta beren esperientziak idazten dituzte. «Haien txokoa da».

Eliana Aleman • Paris 365-ko proiektuen koordinatzailea

«Salda beroa ematea etxegabeekin hitz egiteko eta egoteko aitzakia izan da»

K.B Iruñea

Gogorra izan da aurtengo negua, bereziki kale gorrian bizi direnentzat. Aurten, baina, berotasun apur bat jaso dute. Iruñeko Paris 365 elkarteak salda beroa banatu du, negu osoan, Iruñeko etxegabeen artean. Egitasmoa «arrakastatsua» izan dela dio Eliana Alemanek (Kolonbia,1973), eta, denera, 60 etxegabek hartu dute salda. Aleman arduratu da kanpaina koordinatzeaz, eta jakinarazi du parte hartu duten boluntario guztiek, salda banatzeaz gain, solasaldi «atseginak» izan dituztela etxegabeekin.

Neguan aritu zarete Iruñean etxegabeei salda banatzen. Zer-nolako balorazioa egiten duzue?

Abenduaren 21etik martxoaren 31ra arte aritu ginen Iruñeko kaleetan salda beroa banatzen. Astero hiru aldiz, —astelehen, asteazken eta ostiralez— 19:00etatik 22:00etara aritu ginen hiriko txokoetan. Oso esperientzia ona izan da, arrakastatsua. Azken finean, salda banatzea haiekin egoteko eta hitz egiteko aitzakia baino ez da izan.

Eta haiek eskertzen dute solasaldi bat izatea?

Askok bai. Izan ere, denek ez zuten salda hartzen. Batzuek, bakarrik hitz egin nahi zuten, tarte batez haiekin hizketan aritzea. Nik uste dut hori izan dela egitasmoaren alderik garrantzitsuena: alde gizatiarra. Elkar ezagutzea, hitz egitea eta laguntzea. Biziki eskertzen zuten, adibidez, bakoitzari bere izenez deitzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle eta irakasle talde bat aritu da zuekin ikerketa bat egiten.

Kanpaina hau aurrera atera dugu, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Iruñeko Hezitzaile Eskolarekin batera . Unibertsitateko Soziologia departamentuko langile eta ikasle talde batek ikerketa abiatu du etxegabeekin. Gurekin aritu dira egun batzuetan, eta beste batzuetan haien kabuz egon dira etxegabeekin. Zerbitzu bidezko ikasketa metodologia erabili dute ikerketan, eta haien emaitzen esperoan gaude. Maiatzerako egonen direla esan digute. Besteak beste, Iruñean zenbat etxegabe dauden eta zein den haien egoera jakinen dugu. Ikertzaile taldearen helburua da etxegabeen arazoa gehiago ezagutzea eta etorkizunari begira nola aurre egin jakitea.

Zenbat pertsonari eman zenieten salda beroa eta hitz egiteko aukera?

Denera, 60 pertsonari banatu genien salda. Gehienak alde zaharrean bizi dira, eta han egiten dute bizitza. Kutxa automatikoetan eta aurkitzen dituzten beste txokoetan lo egiten dute. Guztira, 49 boluntariok hartu dute parte kanpainan. Saldaz gain, kalea jasangarriago izateko kit bat eman genien denei: lozakua, bizkar zorroa eta termoa.

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Haiekin lanean jarraituko duzue?

Iruñean etxerik gabe dauden pertsona guztiak gure laguntza izatea nahi genuen. Batzuk lehenagotik ezagutzen genituen, eta beste batzuk ezagutu berri ditugu. Haiekin egoten ginenean gure zerbitzuen berri ematen genien: jantokia eta txokoa, adibidez. Informazioa eman eta haien egoerari aurre egiteko ditugun baliabideak eskura jarri genizkien. Orain, behintzat, aukerak dituzte. Esperientzia berria izan da guretzat salda banatzearen kanpaina, baina argi dugu datorren neguan eutsi egingo diogula. Guretzat, egitasmoa oso aberasgarria izan da, eta nik uste dut haientzat ere hala izan dela. Gau hotzetan berotasun apur bat eman diegu.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA